

# LARRIALDIARI AURREGITEKO BIDEA (LABI)-ren AHOLKU BATZORDEA-ren BILERA.

2020- 03-27 Gasteiz 27-03-2020

## Lehendakariaren hitzaldia-Intervención del Lehendakari

Egunon,

Mahai hau duela bi aste eratu genuen.

Euskadin koronabirusaren pandemiari aurre egiteko erakundeen arteko lankidetzarako oinarriak jarri genituen.

Hamalau egun hauetan aste batzuk lehenago pentsaezinak izango ziren neurriak hartu ditugu.

Gure herritar gehienek bi aste daramatzate etxetik irten gabe.

Egunero, pertsona bakoitzak, albiste tristeak, lazgarriak eta kezkarriak entzuten, ikusten edo irakurtzen ditu.

Egoera zinez gogorra da, eta ez du aurrekaririk gure belaunaldiarentzat.

Bizi dugun testuinguruan osasun-larrialdia eta herritarren kezka dira nagusi.

Une honetan, konfiantza eta elkarlana balio handiko ardatzak dira krisia gainditzeko eta gizarteari sosegua erakusteko eta eskatzeko.

Ardatz hauek indartzea erakundeen funtsezko zeregina da.

Nire aldetik, konfiantza eta sosegua indartzeko hamar arrazoi aipatuko ditut:

### **1. Konpromisoa.**

Osasun arloko eta funtsezko zerbitzu guztietako profesionalak konpromisoa eskaintzen ari dira. Hau indargune bat da gizarte osoarentzat.

### **2. Gizartearen leialtasuna.**

Gizartearen leialtasunari esker, konfinamendua betetzen ari da. Arrakasta zibikoa da. Pandemiaren aurrean lortuko den garaipena herritarren konpromiso horren garaipena izango da.

### **3. Osasun-gaitasuna.**

Geure osasun-sistema gai izaten ari da osasun-zerbitzuaren eskaerari erantzun duina emateko.

### **4. Ospitaleko plazak.**

Euskadiko osasun-sistema berrantolatzen ari da ohe-edukiera handitzeko. Ospitale-arretarako espazio osagarriak prestatzen ari gara.

### **5. Zainketa Intentsiboetako Unitateak.**

Osakidetzaren Kontingentzia Planari esker, Zainketa Intentsiboetako Unitateetako ohe-edukiera handitu daiteke, beharrezkoa izanez gero.

### **6. Hornidurak.**

Orain arte, krisi honi aurre egiteko oinarrizko hornidurak izatea lortu dugu. Egindako ahalegina emaitza ematen ari da.

## **7. Auzolana.**

Erakunde guztiak koordinatuta eta lankidetzaz estuan ari gara, helburu bera partekatuz.

## **8. Baliabide ekonomikoak.**

Euskal Erakundeek aurrekontuen baliabideak ber-bideratzen ari gara. Krisiaren ondorio ekonomikoari aurre egiteko eta enpleguari eusteko programak onartu ditugu.

## **9. Gizarte babesa.**

Erakunde guztiak estaldura-neurriak hartzen ari gara familia ahulenentzat, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat edo etxerik gabeko pertsonentzat.

## **10. Elkartasuna.**

Krisi honen eraginez elkartasun ekimen ugari antolatzen ari dira, egoera "guztion artean" gainditzeko.

Hainbeste atsekaberen aurrean, beharrezkoa da **hamar adierazle positibo horiek ematen diguten ikuspegia nabarmentzea.**

Konfiantzarako eta sosegurako hamar arrazoi dira.

Hori da erakundeek eta gizarteak jarraitu behar dugun bidea.

Oraindik une oso gogorak gainditu beharko ditugu. Etorriko diren zailtasunez jabetuta, **gure lehentasunak bost hitzetan laburbiltzen dira:**

- 1.- **Osasuna**, osasun publikoaren zerbitzua eusteko.
- 2.- **Gizartea**, behar gehien dituztenei eta familiei laguntzeko.
- 3.- **Ekonomia**, enpresei laguntzeko eta enplegua babesteko.
- 4.- **Komunikazioa**, gizartea gardentasunez eta leialtasunez informatzeko.
- 5.- **Auzolana**, lehentasunei elkarlanaren bidez erantzuteko, energia alferrik ez galtzeko.

Konfiantzarako eta sosegurako arrazoiak baditugu.

### **Bada itzaropenerako arrazoirik.**

Auzolanaren bidez, egoera honi buelta emango diogula sinesteko arrazoiak baditugu.

Hace ahora dos semanas, el pasado 14 de marzo, constituimos esta Mesa y pusimos las bases de la colaboración interinstitucional para enfrentar y frenar la pandemia del coronavirus en Euskadi.

En dos semanas hemos adoptado medidas que, tan solo unas semanas antes, hubieran sido **inimaginables**.

Cerramos los centros educativos. Declaramos la emergencia sanitaria. Aprobamos el Plan de protección civil de Euskadi. Ampliamos las medidas de aislamiento social y confinamiento. El Gobierno Español decretó el estado de alarma.

La mayor parte de nuestros conciudadanos lleva 15 días prácticamente sin salir de casa. Cada día ofrecemos información pública sobre la evolución de los casos positivos confirmados, así como las personas fallecidas y todos los datos relativos a la evolución del contagio.

Cada día la ciudadanía, cada persona, escucha, ve, o lee noticias tristes, descorazonadoras o inquietantes.

Realmente **la situación es muy dura y sin precedentes para nuestra generación.**

Vivimos una situación de emergencia sanitaria y de profunda inquietud ciudadana.

En este contexto, **la confianza social** en la superación de la crisis **y la serenidad** para afrontarla son factores de altísimo valor para superar la crisis.

Reforzar las razones para la confianza y la serenidad es una tarea fundamental de las instituciones, **también de esta Mesa.**

Implica actuar con responsabilidad, colaborar y anteponer lo que nos une a lo que nos divide.

Permítanme centrar mi intervención en poner de manifiesto **diez razones para la confianza y la serenidad:**

### **1. Compromiso.**

Las y los profesionales sanitarios, las y los trabajadores de los servicios esenciales, están dando un ejemplo de compromiso. Constituye una fortaleza para superar la crisis y **una referencia a seguir** para el conjunto de la sociedad.

### **2. Lealtad cívica.**

Las medidas de distanciamiento social y confinamiento domiciliario se están cumpliendo. La sociedad está actuando con absoluta lealtad cívica. La victoria frente a la pandemia será, en gran medida, una victoria de este compromiso ciudadano. Debemos confiar en que la estrategia de contención empiece a dar resultados.

### **3. Capacidad sanitaria.**

Nuestro sistema de salud está siendo capaz dar **una respuesta digna** ante una prueba de dimensión y complejidad sin precedentes. Está demostrando capacidad para canalizar la demanda del servicio sanitario y adaptarse a las necesidades que se le plantean.

### **4. Plazas hospitalarias.**

Osakidetza está reordenando todo el sistema sanitario para ampliar la capacidad de camas y atender a las personas enfermas por coronavirus. Tenemos, además, **espacios complementarios en preparación** para la atención hospitalaria.

### **5. Unidades de Cuidados Intensivos.**

Osakidetza cuenta con un Plan de Contingencia que nos está permitiendo **incrementar la capacidad de camas UCI**, si esto fuese necesario.

### **6. Suministros.**

Estamos trabajando con carácter prioritario para que el sistema sanitario, socio-sanitario y los servicios esenciales cuenten con los suministros básicos para enfrentar esta crisis. Hasta el momento, y a pesar de las dificultades y algunas trabas, **el esfuerzo está dando resultado.**

### **7. Colaboración.**

Todas las instituciones estamos actuando de modo coordinado y en un marco de estrecha colaboración, compartiendo un mismo objetivo.

#### **8. Respuesta económica.**

Las instituciones estamos reorientando las prioridades presupuestarias. Hemos aprobado **Planes de choque** con medidas económicas y tributarias para hacer frente a las consecuencias de esta crisis en la industria, las pequeñas y medianas empresas, autónomos o el comercio. También en el empleo y las familias.

#### **9. Cohesión social.**

Ante el impacto de la crisis en las economías más vulnerables, todas las instituciones estamos adoptando medidas de cobertura para las familias y personas en situación de exclusión, para las personas sin hogar. Nuestro compromiso sigue siendo **no dejar a nadie atrás**.

#### **10. Solidaridad.**

Esta crisis está haciendo aflorar un sinnúmero de iniciativas solidarias y de compromiso colectivo. El afecto desde los balcones, las redes de voluntariado, las empresas y particulares que producen suministros necesarios... Son ejemplos de **una sociedad viva y activa**, comprometida y solidaria. Esto es auzolana!

Entre tanta noticia negativa y tanto desasosiego, estas son **diez razones para la confianza y la serenidad**.

Diez motivos para la esperanza.

Este es el camino que debemos seguir las instituciones y la sociedad en su conjunto.

Seguimos atravesando los peores momentos de esta crisis. Con serenidad y plena consciencia de las dificultades que todavía deberemos enfrentar, **resumo las cinco prioridades para las dos próximas semanas:**

- Respuesta sanitaria para preservar la salud pública y superar esta crisis.
- Respuesta social para ayudar a las personas y familias que más lo necesiten.
- Respuesta económica para apoyar a las empresas y proteger el empleo.
- Respuesta comunicativa para informar con transparencia y lealtad a la sociedad.
- Respuesta colaborativa para no desperdiciar una sola energía en lo que no sea relevante.

Comparto mi testimonio personal, mi convicción más profunda: hay motivo para la confianza y la serenidad.

**Hay motivo para la esperanza.**

Ondoren, Osasun eta Segurtasun Sailburuek egoeraren eta abian dauden jardueren buruzko informazioa eskainiko digute.

Eskerrik asko!